

ETXEBIZITZARAKO



LAGUNTZAK



ETXEBIZITZARAKO PRESTAZIO EKONOMIKOA (EPE)

Etxebizitarako eskubide subjektiboa aitortuta baduzu, baina eskuragarritasun ezagatik ezin baduzu etxebizitza publikorik eskuratu, Etxebizitzako Prestazio Ekonomikoa jaso dezakezu. Etxebizitza publiko baten zain zauden bitartean, bizi zaren etxebizitzaren alokairua, azpierrenta edo logelaren alokairua ordaintzeko 300 euro arteko laguntza emago dizu hilean.

BALDINTZAK:

Adina: 18 urtetik gorakoa izatea (salbuespen batzuekin). **Erroldatzea:** Euskadin erroldatuta egotea eta bertan bizitzea. **Etxebizitza:** Etxebizitza libre batean bizitzea alokairuan, azpierrentan, logelen alokairuan edo bizitoki kolektibo batean. Errentak urteko diru-sarreraren % 30 gainditu behar du. Errenta banku-transferentzia bidez ordaindu behar da. **Ekonomia:** Gutxieneko diru-sarrerak egiaztatzea eta ezarritako gehieneko diru-sarrerak ez gainditzea.

Etxebizitarako eskubide subjektiboa aitortua izan behar duzu eta EAEko Etxebizitza Plana eskatu behar duzu.

Online eska dezakezu laguntza, identifikazio elektronikoaren bidez edo aurrez aurre, Zuzenean zerbitzuan. Kontsultak egiteko deitu KZgunera (telefonoa: 945062555) edo bisitatu Etxebideren webgunea.

ETXEBIZITZARAKO ESKUBIDE SUBJEKTIBOA

Etxebizitza-eskubide subjektiboa Euskadin etxebizitza babestu bat eskuratzeko eskubidea da. Eskubide hori lortzeko, baldintza hauek bete behar dira: erkidegoan bizitzea, etxebizitzarik ez izatea, ezarritako mugak gainditzen ez dituzten diru-sarrerak eta ondarea izatea, eta Etxebideren Etxebizitza Eskatzaileen Erregistroan izena emanda egotea hiru urteko antzinatasunarekin.

EMANTZIPA

25 eta 29 urte artean dituzu eta independizatu nahi duzu? Eusko Jaurlaritzaren Emantzipa Programak hilean ematen dituen 300 euroko laguntzak lortu ditzazkezu, 24 hilabetez, etxebizitzaren alokairu-, hipoteka- edo mailegu-gastuak estaltzeko.

BALDINTZAK:

Adina: 25 eta 29 urte bitartean izatea. **Erroldatzea:** Euskadin erroldatuta egotea eskaera egin baino 12 hilabete lehenago gutxienez edo azken 10 urteetan 3 urte jarraian. **Etxebizitza:** Etxebizitza baten alokairua, hipoteka edo mailegu bat (transferentzia bidez, Bizum, etab.) ordaintzea. Bertan jarraitutasunez bizitzea eta etxebizitza horretan erroldatuta egotea. Oro har, beste etxebizitzarik ez edukitzea. **Lotura familiarra:** Alokaturako etxebizitza ezin da hurbileko senide batena izan. **Ekonomia:** Gutxieneko diru-sarrerak egiaztatzea eta ezarritako gehieneko diru-sarrerak ez gainditzea.

Laguntza jasotzen duzun bitartean bete beharko dituzu baldintza horiek guztiak, eta zure egoeran aldaketarik gertatzen bada, aldaketa horien berri eman beharko duzu.

Online eska dezakezu laguntza, identifikazio elektronikoaren bidez edo aurrez aurre, Zuzenean zerbitzuan, eta gehienez 6 hilabeteren buruan emango dizute emaitzari buruzko informazioa. Kontsultak egiteko, deitu 012 telefonora, idatzi emantzipa@euskadi.eus helbidera edo bisitatu ezazu Gazteaukera webgunea.

GIZARTE LARRIALDIETARAKO LAGUNTZAK (GLL)

Gizarte Larrialdietarako Udal Laguntzak (GLL) alokairuari, hipoteka-ordainketei eta bestelako gastuei aurre egiteko zailtasun ekonomikoak dituztenei laguntzeko dira. Funtsezko gastuak estaltzea eta kalteberatasun-egoerak prebenitzea du helburu.

BALDINTZAK:

Adina: 18 urtetik gorakoa izatea (salbuespen batzuekin). **Erroldatzea:** Eskaera egin baino gutxienez 6 hilabete lehenago Euskadin erroldatuta egotea eta bertan bizitzea. **Ekonomikoa:** Ez da beharrezkoa gutxieneko diru-sarrerarik izatea, eta ezin dira gainditu ezarritako muga ekonomikoak. **Inkonpatibilitatea:** EPE, Gaztelagun edo Emantzipa. Alokairutarako laguntza eskatuz gero, Etxebiden inskribatuta egon beharko duzu. Alokairutarako laguntza eskatuz gero, Etxebiden inskribatuta egon beharko duzu.

Ermuko Gizarte Zerbitzuetan eskatu behar duzu laguntza: ErdikoKale 21ean edo 943 17 91 61 telefonora deituta.



GAZTELAGUN

Gaztelagun, Eusko Jaurlaritzak independentziarako bidea hasteko eskaintzen dizun beste laguntza bat da. Eusko Jaurlaritzak zure alokairuaren % 60ra arte ordainduko dizu, gehienez 300 euro hilean, berdin da pisua partekatzen baduzu ala ez 36 urte bete arte.

BALDINTZAK:

Adina: 18 eta 35 urte bitartean izatea. **Erroldatzea:** Euskadin erroldatuta egotea eskaera egin baino gutxienez 6 hilabete lehenago. **Etxebizitza:** Etxebizitza libre bateko errentaria izatea eta bertan jarraitutasunez bizitzea. Gehieneko errenta aldatu egiten da urtero (errenta banku-transferentzia, Bizum edo ordainketa elektroniko bidez ordaindu behar da). Oro har, beste etxebizitzarik ez izatea. **Lotura familiarra:** Alokaturako etxebizitza ezin da gertuko senide batena izan. **Ekonomia:** Gutxieneko diru-sarrerak egiaztatzea eta ezarritako gehieneko diru-sarrerak ez gainditzea. **Bateraezintasuna honako hauekin:** DSBE, INV, EPO, EPE edo gizarteratzeko beste errenta batzuk.

Laguntza jasotzen duzun bitartean bete beharko dituzu baldintza horiek guztiak, eta zure egoeran aldaketarik gertatzen bada, aldaketa horien berri eman beharko duzu.

Online eska dezakezu laguntza, identifikazio elektronikoaren bidez edo aurrez aurre, Alokabideren bulegoetan: Trenbide etorbidea 36, behea 48012 Bilbao. Kontsultak egiteko deitu 945 569 020 telefonora edo bisitatu Alokabideren webgunea.

